



**GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.k**

**USURBILGO UDALERRIAN SELEKTIBOKI JASOTAKO EGURRAREN BILKETA ETA  
GARRAIOAREN ZERBITZUA KONTRATATZEKO**

**AGIRI TEKNIKOA**

## Aurkibidea

1. - AGIRI TEKNIKOAREN HELBURUA .....	3
2. – LURRALDE EREMUA.....	3
3. – ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA .....	3
3.1. Bildu beharreko hondakinak.....	3
3.2.-Bilketaren modalitatea.....	3
3.3. Erabiltzaileen eta bildu beharreko hondakinen kopurua .....	4
3.4. Bilketa maiztasuna, egutegia eta ordutegia .....	5
3.5. Bilketaren beste alderdi batzuk.....	5
3.6. Egur hondakinen garraioa.....	6
4. – ZERBITZUAREN ANTOLAKETA.....	7
5. – LANEN GAINBEGIRATZEA.....	7



## 1. - AGIRI TEKNIKOAREN HELBURUA

Agiri honen xedea ondorengo da: Usurbilgo udalerrian sortutako egurraren bilketa selektiboa eta garraio zerbitzua kontratatzeko oinarri gisa erabiliko diren hainbat baldintza tekniko zehaztea

## 2. – LURRALDE EREMUA

Agiri honetan deskribatzen diren bilketa lanak Usurbilgo udalerrira mugatuko dira.

## 3. – ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

Zerbitzu honen lanetan, erabiltzaileek utzitako egur hondakinak biltzetik tratamendu-zentroraino garraiatzera arte beharrezkoak diren eragiketa guztiak sartuko dira.

### *3.1. Bildu beharreko hondakinak*

Bilketa zerbitzua funtsean poligonoetan eta industria-guneetan eskainiko da eta halaber, poligono edo industria-gune tipiko hauetatik kanpo kokatuta egonik, zerbitzua eskatzen duten erakunde, enpresa edo tailerrei erantzun beharko zaie. Beraz, zerbitzuaren erabiltzaileen zerrendak ez du izaera mugatua edukiko. Honela, Usurbilgo udalerrian kokatutako egurrezko hondakinen sortzaile batek Garbitania Zero Zabor S.M.k kudeatutako Usurbilgo atez ateko bilketaren informazio bulegoan zerbitzua eskatzen badu, zerbitzuaren esleipendunaren betebeharra izango da zerbitzua ematea Garbitania Zero Zabor S.M.k ezarritako egutegi, maiztasun eta ordutegiarekin bat, honek esleitutako zerbitzuaren prezioan aldaketarik suposatu gabe.

Zerbitzuaren erabiltzaileek birziklatzea zailduko luketen gainerako hondakinetatik erabat bereizita entregatu beharko dituzte egur hondakinak. Zerbitzuaren esleipendunak ez ditu jasoko hondakin mota ezberdinen nahasketa heterogeneoak dituzten egur hondakinak.

### *3.2.-Bilketaren modalitatea*

Zerbitzu honen bilketa modalitatea atez atekoa da. Zerbitzuaren erabiltzaileek zehaztutako egunean hondakina prest eduki behar dute esleipendunak eramateko.

Egur hondakinak enpresa barruan gordeko dira eta zerbitzuaren erabiltzaileek agindutako lekuan jarri beharko dituzte, dagokien ordutegiaren barruan, ondoren esleipendunak bildu ditzan.

Establezimenduaren, eraikinaren edo biltegiaren sarreratik ahalik eta tokirik hurbilenean eta irisgarrienean kokatuko da bilketa puntua. Erabiltzailearen batek ez badu bilketa puntua errespetatzen, esleipendunaren funtzioa izango da zerbitzuaren baldintzak gogoraraztea eta oraindik jarrera berak jarraitzen badu, Usurbilgo atez ateko informazio bulegoari jakinaraztea.

Normalean egur hondakinak paletak eta bilgarrien egurrak izango dira. Hauek lurzoruan soltean utziko dira txukun pilatuta.

Sortutako egurrezko hondakinak dituzten ezaugarriengatik soltean uztea gomendagarria ez denean (listoiak, egur zati txikiak, etab.), atzeko kargako edukiontzi normalizatueta utzi ahal izango dira. Edukiontzi hauek Garbitania



Zero Zabor S.M.k banatuko dizkie beharra duten erabiltzaileei. Erabiltzaile bakoitzak identifikatutako edukiontzi propioa edukiko du. Bilketa lanetan edukiontziak manipulatzeko ari diren bitartean, puskatu edo kaltetzen badira, esleipendunak konpondu edo berritu beharko ditu.

Edukiontzi bidezko bilketa egitean, hauek hustu ondoren, berriz ere jatorrizko kokagunean utzi beharko dira, estalkia itxita dutela eta frenoak duten kasuan, hau jarria dagoela.

Egur hondakinen bilketa eta garraioa atzeko kargako bilketa sistema duen ibilgailu autokonpaktatzaile sendotu baten bidez egingo da, edo eskaintzaileak proposatu eta arrazoitutako beste karga sistema bat duen ibilgailuaren bidez.

### **3.3. Erabiltzaileen eta bildu beharreko hondakinen kopurua**

Zerbitzuaren erabiltzaileen kopurua ondorengoa da zonaldeka:

<b>Gunea</b>	<b>Erabiltzaile kopurua</b>
Ugarte poligonoa	2
Ugaldea poligonoa	32
Zumartegi poligonoa	29
Osinalde poligonoa	24
Asteasuain poligonoa	14
Aginaga auzoa	11
Txokoalde auzoa	2
Atailu poligonoa	6
<b>GUZTIRA</b>	<b>120</b>

Zerrenda hori ez da mugatzailea eta beraz, kontratuaren epealdian alda daiteke, ohiko funtzionamenduan izan daitezkeen alta eta bajetan oinarrituta.

Hala ere, erreferentzia datu gisa, erabiltzaileen % 73-ak egiten duen zerbitzuaren erabilera maiztasuna hilean behingoa baino txikiagokoa da. Asteko zerbitzuan batez beste 30-40 puntu biltzen badira ere, 120 puntu horietatik guztietatik astero pasatzea ezinbesteko baldintza izango da.

Erabiltzaileen altak eta bajak Usurbilgo atez ateko informazio bulegoak bideratuko ditu eta kontratistari ahalik eta azkarren jakinaraziko zaizkio telefono edo posta elektronikoki bidez.

Kontratua indarrean den bitartean erabiltzaileak gehituz gero, esleipendunak bere gain hartu beharko ditu, berrazterketa ekonomikorik gabe, betiere kontratuaren hasierako eremuaren barruan gertatzen badira.

Erreferentzia modura, gaur egun astean behingo bilketa maiztasunarekin jaso ohi den egur hondakin kopuruaren batez bestekoa 2,5 tonakoa da. Datu honen maximo historikoa 5,34 tonakoa da eta minimoa berriz 1,02 tonakoa.



Esleipendunak produkzio maila handiko bilketa garaietan zerbitzua behar bezala eskaintzeko beharrezko errefortzuak aurreikusi beharko ditu.

Maximo edo/eta minimoa 8 astez jarraian errepikatzen denean kontratuaren modifikazioa aztertuko da.

#### ***3.4. Bilketa maiztasuna, egutegia eta ordutegia***

Nahasteak saihesteko eta erabiltzaileei ahalik eta eragozpen gutxien sortzeko, eskaintzaileek Garbitaniak esandako eguna eta ordutegia errespetatu beharko dute. Edozein kasutan, zerbitzua astean zehar eskainiko da, eta aldaketarik ezean astearte goizetan burutuko da. Arrazoi ezberdinak medio astearteko zerbitzua egunez aldatu behar balitz esleipendunak onartu egin beharko du.

Gaur egun, egurrezko hondakinen bilketa zerbitzua astean behingo maiztasunarekin eskaintzen da, asteartetan.

Garbitania Zero Zabor S.M.ren esku geratzen da kontratatutako bilketa maiztasuna handitzea, zerbitzu egoki bat bermatzeko.

Esleipendunak proposatu eta Garbitania Zero Zabor S.M.k onartutako egutegia zorrozki errespetatu eta bete beharko da. Jaiegunei dagokien bilketa aurreko edo hurrengo egunera pasako da oso osorik, kasu bakoitzean Garbitania Zero Zabor S.M.k emandako argibideekin bat.

Bilketa ordutegia lanordura moldatuko da, bilketaren, identifikazioaren eta hondakin mota bakoitzaren emate baldintzen kontrol lanak errazago egiteko. Gaur egun, egur hondakinen bilketa eta garraio zerbitzuaren iraupena 5 ordutakoa da.

#### ***3.5. Bilketaren beste alderdi batzuk***

Bilketa zerbitzuak egur hondakinak onartu baino lehen, hauek ondo bereizita daudela egiaztatu beharko du. Helburua batetik, hondakinak ez nahastea eta, bestetik, hondakin toxikoak edota arriskutsuak ez entregatzea da.

Bilketa zerbitzuak hondakin desegokiak dituen karga bat hautematen badu, beti bildu baino lehen atez ateko bulegoari jakinarazi beharko dio edozein erabaki hartzeko eta bertan aztertu ondoren esaten zaiona egin beharko du. Edukiontziak dituzten erabiltzaileen kasuan ere, egurra ez den bestelako edozein hondakin ikusten bada, esleipendunak berehala Usurbilgo atez ateko informazio bulegoari jakinarazi beharko dio eta hau izango da bezeroarekin harremanetan jarriko dena

Bilketa eremuaren barruan kontrolik gabeko egur isurketarik hautematen bada eta arau hauslea identifikatzea ezinezkoa suertatzen bada, Usurbilgo atez ateko informazio bulegoari jakinarazi beharko dio. Atez ateko bulegoak egur bilketa zerbitzuak egin behar duela baderitzo, inongo kosturik gabe, esleipendunak eskatutakoa jasoko du.

Esleipendunak zerbitzua egitean kontua izango du, hondakinak manipulatu dituen gunea ez zikintzeko. Manipulazio eragiketetan isurtzen diren egur hondakinak bilketa taldeko langileek berehala erretiratuko dituzte.

Kontratatutako bilketa-ordutegia zorrozki betetzen dela zaindu beharko du. Ordutegia ezinbesteko arrazoirik gabe bilketaren edozein zonatan behin eta berriz betetzen ez bada, Garbitania Zero Zabor S.M.k plegu administratiboetan xedatutakoari jarraiki, zigortzeko ahalmena izango du.



Esleipendunak egur hondakinen bilketa lanetan lan arriskuen prebentzio arauak betetzen direla zaindu beharko du. Ildo horri jarraiki, kargak manipulatzeari buruz indarrean dagoen ergonomia-araudiaren arabera, ez dira inolaz ere eskuz jaso behar diren gehieneko pisuak gaindituko. Horretarako, eskaintzaileek beren eskaintzetan betetzeko neurriak definituko dituzte; zehaztasun mailak ergonomiaren eta ibilgailu zirkulazioaren arriskueterako nahikoa zabala eta xehea izan beharko du.

Zerbitzu honen bidez jasotako material guztia Usurbilgo udalerrriaren jabetzakoa izango da ondorio guztietarako.

Inoiz ezingo du esleipendunak erabaki kalean utzitako bestelako edozein materialekin zer egin. Beti atez ateko bulegoarekin edota Garbitaniako teknikariarekin adostu beharko du zer egin eta beti hauek esaten diotena egin beharko du.

### *3.6. Egur hondakinen garraioa*

Esleipendunak bildutako egurrezko hondakinak Errenteria-Oreoretako udalerrian kokatutako San Markoren instalazioetako birziklatze gunera garraiatu beharko ditu.

Kontratua indarrean den bitartean, Garbitania Zero Zabor S.M.k egur hondakinak eramateko beste edozein tratamendu gunea hautatu lezake eta horrek ez du esleitutako prezio unitarioan gehikuntzarik ekarriko.

Esleipendunak bildutako egurrezko hondakinak garraiatzeko instalazio lehenetsia San Markoren birziklatze gunea bada ere, eskaintzaileek, beren bitartekoak erabiliz zuzeneko kudeaketaren proposamena egin dezakete. Horretarako, Garbitania Zero Zabor S.M.ri eginiko eskaintzetan, egur tona bakoitzeko kudeaketarengatik proposatutako fluxu ekonomikoa (kostua edo diru-sarrera) zehaztu beharko dute. Lehentasunez, merkatuko erreferentzia bat hartuko da, kontratuaren bizian zehar eboluzioa doitzeko.

Garbitania Zero Zabor S.M.k egurraren tratamenduaren kudeaketa proposamena onartuz gero, kontratistak Garbitania Zero Zabor S.M.ri indarrean dagoen legediaren barruan eta araudi europarrak xedatutako printzipio orokorretan oinarrituta, egurrari emandako tratamenduaren ziurtagiriak aurkeztuko dizkio.

Garbitania Zero Zabor S.M.k eremu honetan aurkeztutako proposamenak onartu edo baztertzeko ahalmena gordetzen du. Horien onarpenerako, ezinbestekoa izango da bildutako materialaren tratamendu-proiektuan proposatutakoa Garbitaniak proposatutakoaren baliokidea izatea edo ingurumen arloan hobekuntzak aurkeztea. Egurraren zuzeneko kudeaketa onartzen badu, kontratua indarrean den bitartean Lehendakaritzaren ebazpen arrazoituz baliogabetu dezake. Erabakia gauzatu dadin, 60 egun natural lehenago ohartarazi beharko da.

Esleipendunak une oro tratamendu plantak zehaztutako arauak eta baldintzak bete eta onartu beharko ditu.

Materiala deskargatzerako garaian hondakin ez onargarriak izateagatik, hauek berreskuratzea saihestu edo zailtzen dutelako, bilketa ibilgailuen karga



tratamendu zentroan atzera botatzen bada, esleipendunak bere gain hartuko ditu behar bezala kudeatu arteko gastu guztiak.

Esleipendunak beharrezko neurriak hartuko ditu bilketa puntuen arteko garraioan eta tratamendu plantarako garraioan zehar egur hondakinik ez isurtzeko.

#### 4. – ZERBITZUAREN ANTOLAKETA

Eskaintzaileek zerbitzuaren antolaketaren proiektua, bitartekoak eta langileak definituko dituzte, gutxienez honako puntuak azalduz:

- Zerbitzua eskaintzeko ekipoaren deskribapena: ibilgailu mota (fitxa teknikoa eta argazkiak) eta langileak.
- Bilketa egutegi eta ordutegia. Bilketa eguna astearte goiza izango dela jakinik.
- Esleipendunaren instalazio finkoetan edukiko diren erreserbako ibilgailuak eta ibilgailuen aberia nahiz programatutako geldialdietan zerbitzua zehaztutako egutegi eta ordutegian emateko aurreikusitako Jarraibideen Plana.
- Zerbitzua hobeto deskribatzeko beharrezko datu guztiak.

Tratamenduaren zuzeneko kudeaketa proposamena aurkeztu behar den kasuan:

- Bildutako egurraren garraio eta balorizazio sistemaren proiektu zehatza.
- Egur hondakinen tratamendu enpresa batek sinatutako erantzukizun aitortpena, non bere konpromisoa adierazten duen kontratua indarrean den bitartean Usurbilgo udalerriko eremuan bildutako egur hondakinak hartu eta prozesatuko dituela, errekuiperatutako egur hondakinak balorizatzen bideratzeko berariazko konpromisoa barneratuz.
- Tratamendu enpresaren instalazioen deskribapen zehatza, bere aktibitatea burutzeko dituen baimenak eta azken balorizaziorako prozesatutako egurra bideratzen duen enpresa nagusien zerrenda.
- Fluxu ekonomikoa tratatutako egur tonako.

#### 5. – LANEN GAINBEGIRATZEA

Garbitania Zero Zabor S.M.ren esku geratzen da kontratatutako zerbitzuen zuzendaritza fakultatiboaren eskubidea erabiltzea. Horretarako, agiri honen xedea diren lanen gauzatzea zuzendu eta gainbegiratuko duten arduradun pertsona bat edo gehiago izenda ditzake. Pertsona horiek lanen burutze zuzenaz arduratuko dira eta kontratistari edo Zuzendaritzako arduradunei bideratuko dizkiete beharrezko agindu eta jarraibideak. Horri dagokionez, esleipendunak proiektuaren arduradun pertsona bat edo gehiago izendatuko ditu Garbitania Zero Zabor S.M.rekin hizketakide-lanak egiteko, gai hau idatziz komunikatu beharko delarik. Idatzian azaldu beharko dira jakinarazpenetarako izena, posta helbidea, telefono zenbakia, posta elektronikoko helbidea, etab. Aldaketarik dagoen kasuan, informazio hau eguneratu egingo da.

Bilketa zerbitzuan azaldutako intzidentzia guztiak idatziz hartu beharko ditu esleipendunak eta Garbitaniak eskatu moduan igorri beharko dizkio bulegoari (argazkia beharrezkoa denean argazkia igorriko zaio atez ateko bulegoari). Egunean eguneko intzidentziak jakinarazi beharko dizkio atez ateko bulegoari.



Hilabeteko azken bilketa egunetik 15 egun naturalera gehienez ere igorri beharko ditu ondorengoak esleipendunak Usurbilgo atez ateko bulegora: intzidentziak, pisaketen albaranak (gutxienez honakoa zehaztuz: pisu gordina, tara, garbia, hondakin mota, LER zenbakia, pisaketa eguna, ordua, lekua, kamioiaren matrikula), eguneroko pisaketa taulak excell formatuan (bilketaren hasiera eta amaiera ordua zehaztu beharko du. Era berean enpresa bakoitzari biltzen dion pisua zehaztu beharko du) eta fakturak. Hau guztia paperean zein oinarri informatikoan igorriko ditu. Albaranen kasuan esleipendunak astero igorriko du informazioa atez ateko informazio bulegora.

Esleipendunak jarraipen sistema aurkez dezake. Halere eta jarraipen sistematik ezean, esleipendunari inbertsiorik suposatu gabe, Garbitaniak bestelako jarraipen sistema baten ezarpena eskatzen badu esleipendunak onartu egin beharko du.

Kontratistaren betebeharra izango da Garbitania Zero Zabor S.M.k antolatutako bileretara honek zehaztutako leku eta orduan agertzea, kontratuaren inguruan eskatzen zaion dokumentazio guztia ematea Garbitania Zero Zabor S.M.k adierazitako epean eta baita honen langileei agiri honen xede diren zerbitzuekin erabat edo partzialki lotutako instalazio, bulego eta ekipamenduetara sarrera erraztea.

Eskatutako informazioa lantzea (inprimatzea, fotokopiatzea, euskarri informatikoan grabatzea, etab.) esleipendunaren kontu izango dira, horretarako material eta ekipoen kostuak barne.

Zerbitzu hau esleitzeko unean, esleipendun enpresak aipatu hondakinak bildu eta garraiatzeko, Hondakinei eta zoru kutsatuei buruzko 22/2011 legeak jasotzen dituen eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako sailak jardueran aritzeko ematen dituen baimen eta erregistroen jabe izan beharko du. Horrez gain, egungo nahiz etorkizuneko araudietatik eratorritako beharrezko baimen guztien jabe izan beharko du. Honela, beharrezkoa izango da kontratista hondakin ez arriskutsuen biltzaile eta garraiolari gisa homologatua egotea.

**EGINBIDEA.-** Baldintza Teknikoen Agiri hau GARBITANIA ZERO ZABOR S.M. Administrazio Kontseiluak onartu zuen, 2014ko otsailaren 12an egindako bilkuran.

**Usurbilen, 2014ko otsailaren 14an.**

**LEHENDAKARIA**

**GERENTEA**